



# Antxiñako fotografixia



## BEREZA O AUZOA

Zenbat urte ete ditxu fotografixa honek? Ezta samurra erantzuna emutia, baiña mordoskia, duda barik. Seguruenik gerra aurrekoa izango dogu, urtia zihatx esaterik ezpadago be. Zein auzo dan berihela igarriko xatzuen, Aloña azpiko bistiori oso ezaguna dalako oñatiarrentzat. **Bereza** auzua da, jakiña. Hala eta guztiz be, bada argazki honetan herritar askok ezagutu eztauen lan-klase baten testigutzaia: **garixa** ereitten zanekua.

Baserri askotan, danetan ez esatiarren, garixa izan zan produkturik inportantiena gizaldittan zihar. Garixaz egitten zan ogittarako uruna, gari eta artotan jasoten zittuan eliziak hamarrenak, eta garittan, batez be, pagaitten ziran baserri-errentak. Argazkixan ikusten danez, soro batzuetan garixak ebagitta eta **metatan** pillatuta dagoz; beste batzuetan, berriz, ebagi barik. Baserri gehixentxuenak 1960-1965 bittartian itxi otzain gari-ereittiari.

Berezaoko etxe asko agiri dira fotografixan: **Korriuena, Landeta, Zelabarren, Lizarralde, Agerre, Zelaikua, Mendikua, Kipuetxe** eta **Ertzilgua**. Lehenengua izan ezik, beste guztiak zutik jarraiketan daue gaur egun. Korriuena 1969xan erre egin zan eta horma batzuk bakarrik geraketan dira. Gari-meta haundi eta txikiz beteta daguen soro horretantxe egitten da iragoko urtietan Artzain-txakurren Naziñoarteko Txapelketia.

J. E.

Eskerrak Xabier Zelaiari fotografixia izteiatatik, eta Iñazio Irizarreri argibide batzuk emutiagatik.

**OHARRA:** Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, LAIXANera ekar dezakezu. Errekalde Herri Eskolan gaituzu, zatoz!



JESUS ODRIZOLA



ERREKALDE - ONATI  
GARRAZ - GARRAZ

Aurrez prestatutako jakiak

Arantzazu kalea, 2B  
Tfnoa.: 943 71 62 11  
ONATI